



## **OIARTZUNGO UDALERRIAN 2023AN GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK**

### **I. AURREKARIAK**

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak abenduaren 23ko 18/2008 Legean, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoan, jasotako diru-laguntzak dira. Laguntza horiek ezusteko gertakari batek eta luzaroan diru-laguntzak jasota bizitzetik sortutako baliabide ekonomiko eskasiak eragindako larrialdiko egoera ekonomikoak estaltzea dute helburu. Pertsonen bizitzan zehar, jakineko momentu batean edo hainbat unetan gerta daitezke egoera horiek. Premiazko ondasunak ez izatera edo gabetasuna dakarten egoerak ekiditeko baliabide aringarri bezala erabiltzen dira GLLak.

2023ko urtarrilaren 31ean, Jaurlaritzaren Kontseiluak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Agindua onartu zuen 2023rako. Agindu horretan, 2023rako, GLLetan jasotako gastu espezifiko bakoitzerako gehieneko zenbatekoak ezartzen dira, horiek estaltzeko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak zehazten dira, eta aurrekontu-muga finkatzen da.

Oiartzunera bideratuko den aurrekontua 93.825,00.- €koa izango dela adierazi du.

#### **Diru atala:**

1 1001 480 231 30 01 2023 GIZA LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Diru-atal honetan 93.825,00.-€ bideratu dira.

### **II. IRIZPIDEN PROPOSAMENA**

2023ko urtarrilaren 31eko AGINDUA betetzea irizpide hauek aplikatuz:

1. Edozein laguntza tramitatzeko iazko laguntzen justifikazioa eguneratua egon beharko du, hala ez bada laguntzak ez dira bideratuko egin bitartean.

2. Laguntzak gastu hauek ordaintzeko erabiliko dira:

2023rako, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen gehieneko zenbatekoak bizikidetzaren unitate bakoitzerako (hemendik aurrera, BU) honako hauek dira:

a) Alokairu-gastuak:

- Errentari bakarrek etxebizitzaren kasuan, edo GLL-a eskatu duen BU bakarrak etxebizitza ko-errentatu edo azpi errentatu badu, hilean 300 euroko laguntza emango da gehienez, eta ezingo du gaintitu etxebizitzaren alokairu-prezioaren edo, hala badagokio, ko-errentagatik edo azpi errentagatik ordaindutako prezioaren % 70.
- Etxebizitza ko-errentamenduan hartuta badago edo bertan azpierreantamenduak badaude, ez dira bi eskaera baino gehiago onartuko, indarreko araudian xedatutakoarekin koherente izanik, eta bizikidetzaren unitateen kopuruarekin zatituko da. Bi bizikidetzaren unitaterentzako hilean 150,00.-euro emango da gehienez, eta bien artean ezingo dute gaintitu etxebizitzaren alokairu-prezioaren % 80.

- Etxebizitzan ostatu- edo apopilo-kontratupeko jendea badago, gehienez bi eskabide egin ahalko dira, lehen esandakoaren arabera, eta hilean 150 euroko laguntza emango da gehienez.
- Legez eraturako hotel, hotel-apartamentu eta pentsioetan bizi direnen kasuan, hilean 300,00.- euro emango da gehienez, muga bizikidetzaren unitateko. Kasu horretan, BUren muga ez da bi izango, baizik eta establezimenduan legez onartutako gehieneko gela kopuruaren arabera.
  - b) Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuengatik hilean 300,00.- euro emango da gehienez, eta ezin izango da gainditu kredituaren hileroko interesen edo amortizazioaren % 70.
  - c) Elektrizitate-, gas- edo etxerako beste erregai-horniketa batzuek eragindako energia gastuengatik, urtean 1.500,00.- euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 750,00.- euro gehienez.
  - d) «Linea zuriko» etxetresna elektrikoen eta altzarien gastuengatik, urtean 1.850,00.- euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 925,00.- euro gehienez.
  - e) Etxebizitza konpontzeko, egokitzeko eta/edo oinarritzko instalazioak egiteko gastuengatik, urtean 1.850,00.- euro gehienez. Bi BU baldin badira, bakoitzari urtean 925,00.- euro gehienez.
  - f) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuengatik, urtean 900,00.- euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 450,00.- euro gehienez. Kontzeptu honek honako gastu hauek barne hartzen ditu: ura, zaborrak, estolderia, ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak –ondasunak landa- zein hiri-eremuak izan– eta jabekideen erkidegoaren kuotatik eratorritako gastuak, bai eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak ere.
  - g) Bizikidetzaren unitateko kide batek edo gehiagok dituzten oinarritzko premiei buruzko gastuengatik –esate baterako, jantziak, hezkuntza eta prestakuntzakoak eta osasun-arretakoak, betiere sistema publikoek gastu horiek berdintzen ez dituztenean–, urtean 2.500,00.- euro gehienez.
  - h) Aurretiko zorpetze-gastuengatik, urtean 3.000,00.- euro gehienez. Bi BUren kasuan, bakoitzari urtean 1.500,00.- euro gehienez.

Hargatik eragotzi gabe aurreko paragrafoan xedatutakoa, a), b), c), d), e), f), eta g) apartatuetan aipatutako kontzepturen batengatik aurretik ezarritako zorren gastuak direla-eta urtean gehienez ezar daitezkeen diru kopuruak ezin izango dira handiagoak izan kasu bakoitzean aipatutako apartatuetan kontzeptu horietarako aurreikusitako gehieneko diru kopuruak baino.

3. Alokairua edo etxe mailegua, energia eta oinarritzko premiak izango dira lehentasuna izango duten kontzeptuak, beharrezkotzat baloratzen bada beste kontzeptuak gehituz.
4. Elikadura beharrei aurre egiteko, irizpide hau kontutan izango da:

LAGUNTZA KOPURUA KIDE KOPUAREN BAITAN

<b>kide kopurua</b>	<b>hileko laguntza</b>	<b>urteko gehienezko laguntza</b>
kide bakarra	250,00 €/hilean	2.500,00 €/urtean
2 kide	300,00 €/hilean	2.500,00 €/urtean
3 kide	350,00 €/hilean	2.500,00 € urtean
4kide edo gehiago	375,00 €/hilean	2.500,00 €/urtean

5. Alokairu kontratu berri baten aurrean, agentzia gastuak, fidantza eta lehen hilabetea ordainduko dira, topea kontutan izanik.
6. Gizarteratze prozesuetan edo familia esku hartze programetan parte hartzen duten onuradunek, alokairua edo mailegu, elikadura eta energia kontzeptuz gain beste kontzeptu gehiagotan laguntza jasotzeko aukera izango dute beti ere Gizarte Zerbitzuen txostenaren arabera.
7. Laguntzaren gehiengo iraupena urte betekoa izango da (urtarriletik abendura). Ekaina abuztua bitartean jarraipen elkarrizketa beharrezkoa izango da laguntzak kobratzen jarraitzeko, 60 urtetik gorakoentzat izan ezik.
8. Aho konponketa kasuetan:
  - Osasun arazo larria ez bada, irailean tramitatuko dira eskaera hauek aurrekontuaren baitan.
  - 100€ edo gutxiagoko aurrekontuetan, 100% ordainduko da
  - Ez dira estrakzioak kubrituko.
  - Ez dira ortodontzia mantenuak kubrituko.
  - Osasunarekin zerikusia duen guztia baloratuko da, ez dira estetika gaiak baloratuko.
  - 100 € baina aurrekontu handiagotan, aurrekontuaren %75 ordainduko da (gehienez 2.500,00.- € urtean)
9. Betaurrekoen erosketan eta aho konponketa kasuetan, ezin izango da behin laguntza onartuta, hiru urteko epean kontzeptu berdinean laguntza eskatu, non eta ez dagoen sendagile baten agiria beharra argudiatuz eta bi aurrekontu eskatu beharko dira.
10. Gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 5. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete behar dira.
11. Urteko dirusarreraren mugak, BU unitatearen arabera, 2023ko Aginduan azaldutakoak izango dira.
12. Onuradunen betebeharrak urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 7. artikuluan azaldutakoak dira.
13. Justifikazioa urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuaren 22. artikuluan azaldutakoa aplikatu behar da.
14. Udalak ez du murrizketarik aplikatuko eta 2023. urtean argitaratutako aginduaren irizpideak errespetatuko ditu, beti ere onartutako udal aurrekontuaren baitan.